

ZER DA TXARTEL BAT?

Txartel bat ordaintzeko modu bat da, kreditu-lerro gisa funtzionatzen duena.

Horrek esan nahi du diru kopuru bat duzula eskuragarri eta behar duzunean erabil dezakezula.

Txartelarekin ordaintzen dudanean, nire dirua erabiltzen dut?

Ez.

Txartelarekin ordaintzen duzunean ez duzu zure kontuan duzun dirua erabiltzen, eta zure aurrezkiak ere ez dituzu erabiltzen.

Erosketak egin ditzakezu zure dirua gastatu gabe. Hori bai: gastatzeko duzun mugaraino bakarrik erabil dezakezu.

Adibidez:

Zure txartelak 3.000 €-ko muga badu eta dagoeneko 1.000 € erabili badituzu, oraindik 2.000 € dituzu eskura.

Diru hori erabil dezakezu erosteko zinemara joateko, kanpoan jateko edo bidaiatzeko.

Nola itzultzen da txarteleko dirua?

Garrantzitsua da jakitea txartelek ordaintzeko modu ezberdinak dituztela.

Zuk erabakitzen duzu nola itzuliko duzun dirua.

Eta nahi duzunean alda dezakezu modua, aparteko kosturik gabe.

Baina gauza garrantzitsu bat hartu behar duzu kontuan: ordaintzeko modu batzuek gastuak dituzte, **interes** deitzen zaie gastu horiei.

Horregatik, garrantzitsua da ondo informatzea aukeratu aurretik.

Txartela ordaintzeko moduak

Ordaintzeko 3 modu nagusi daude.

1. HILAREN BUKAERAN ORDAINTZEA

Gehien erabiltzen den modua da.

Aukera honekin, hilaren amaieran ordainduko duzu hilabete horretan gastatu duzun diru guztia.

Ordainketa modu honek, normalean, ez du interesik, ezta gasturik ere.

2. ORDAINKETA ATZERATUA (*REVOLVING*)

Ordainketa modu honekin, hilero zor duzunaren zati bat bakarrik ordaintzen duzu eta gainerakoa hurrengo hilabeteetan ordaintzen jarraitzen duzu.

Zuk aukeratu dezakezu hilero zenbat ordaindu nahi duzun, baina kontratuan agertzen den kopuru minimoa ordaindu behar da gutxienez.

Aukera hau baliagarria izan daiteke erosketa handi bat egiten baduzu eta dirua poliki-poliki itzuli nahi baduzu.

Baina zera jakin behar duzu: ordainketa atzeratuak (*revolving*) interesak ditu.

Horregatik, hileko kuota zenbat eta handiagoa izan, azkarrago ordainduko duzu eta interes gutxiago ordainduko duzu.

3. ORDAINKETA ZATIKATUA

Ordainketa zatikatuarekin erosketa bat hainbat hilabetetan zatituta ordaindu dezakezu.

Adibidez, erosketa bat zatikatu eta 3, 6, 10 edo hilabete gehiagotan ordaindu dezakezu (bankuak eskaintzen dizunaren arabera).

Hori egin ahal izateko, txartelean «hilaren amaieran» ordaintzeko modua hautatuta izan behar duzu eta zatikapena eskatu, hori behar duzunean.

Hau hartu behar duzu kontuan:
ordainketa zatikatuak ere interesak ditu.



Azken aholkua

Txartelak munduko ia establezimendu guztietan erabil daitezke.

Honela erabil daitezke: Internetez, mugikorrarekin, tabletarekin edo ordenagailuarekin.

Erosketak seguruak dira eta eskudirua eraman behar izatea saihesten dute.

Baina txartela ondo erabiltzeko, garrantzitsua da:

- zure gastuak kontrolatzea,
- ordaintzeko moduak ezagutzea
- eta gehien komeni zaizun aukera hautatzea.